

Denboraren atea

**Maiden IANTZI
GOIENETXE**

Denboraren ate batzuk zehar-
katuz, nire baitako zenbait
leiho itsu zabaldu ditut az-
kenaldian. Amatxi Beniren
eta amatxi Rexuren jaiotetxeak desku-
britu ditut. Zuhaitz eta mendi arteko
txokoak, zoragarriak; horiagoa bata,
berdeagoa bertzea. Bietan egon zen
gertaera lazgarri bat, familia puskatu
zuen. Eritasuna batean, gerra ber-
tzean. Heriotza goiztiarra bietan.

Beniren sortetxean bertze familia
bat bizi da orain, baina ondoko zuhaitz
bat besarkatuz beraien brisa eta estu-
tua sentitu ditut, Miren Agur Meabe-
ren “Itzulerak” nobelako protagonista-
ren antzera, arbolako atetik 1919. urte
ingurura bidaiatuz. Rexuren sorlekuan
bere iloba bat bizi da, eta bere oroimen

eta kontatzeko gaitasun apartari esker
1937ra joan gara lehengusua eta biok.
Adinekoak gara, kazetariak, eta gure
sustraiekiko interesak elkartu gaitu be-
rriro. Amatziren ilobak ez zuen bizi
izan 1937a, baina bere ama ere kontala-
ria izanen zen, eta berak kasu eginen
zion. Etxeko seme zaharrena, gure
amatxiren anaia, gerrara deitu zuten
eta sudurretik odoletan ari zen amak
sukaldeko leihotik zein norabide har-
tzen zuen begiratzeko eskatu zion aita-
ri: mendira, Iparraldera joateko, edo
beheiti, herri aldera, gerrara.

Amatxi duela hamar urte hil zen. Beti
kontatzen zuen, hunkituta, bazuela ge-
rran hildako anaia bat, fronte gogorra
tokatu zitzaiola, Albarracin, Teruel, eta
bertan desagertu zela. Ez dakit zergatik,

orain hasi gara mugitzen eta, kasualita-
tea?, antropologoak Albarracineko hobi
komun batean zundaketa bat egitekoak
dira urrian. Amatziren anaiaren hezu-
rrak han badaude, sorlekura ekartzea da
gure nahia. Rodrigo Terrassa eta Paco
Rocaren “El abismo del olvido” komi-
kian bezala, bere arima hobi horretara
bota zituzten bertze pertsonen arime-
kin batera handik ateratzen irudikatzen
dut, 80 urte baino gehiagoren ondotik,
azkenean libre.

Etxea esparru sakratua dela dio Mea-
bek, bizilekua ez ezik, baita tenplua eta
gotorlekua ere. Bi amatzien etxeko atea
jo dut, poliki, errespetu eta maitasun
osoz, gudan dirautelako, orainak geroan
iraunen duen gisa berean, denboraren
kate honetan. •

Uda joan da ta

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Uda joan da. Ez da joan, orain-
dik bederen, baina burmui-
naren gaiztakeria izan ohi
da aurrerago etorriko dena,
gustukoa ez baina halabeharrez etorri-
ko dena, erlojugilearen mailu kolpe
iraunkor batez gogoraraztea, *kank*,
kank, badatorrela...

Abuztuaren 31tik irailaren 1erako pau-
soa nahikoa du burmuinak opor osteko
sindromea aktibatzeke, eguzki bero
erreak ahaztu eta ortzi-mugan etorriko
diren laino beltzak begitantzeko, txan-
kleta eta galtza motzak ahaztu eta bero-
ki eta aterkiaren zama sentitzeraino.

Oporrak bukatu eta lanera itzuli beha-
rrak ez du laguntzen (bost langiletik bik

depresioa dute), eta berehala “Mordo-
rrera” sartuko garela barneratuta, de-
presioan erortzen da jende askotxo, baja
hartzeraino, lanerako itzulera eta negua
betiko atzeratu nahian-edo.

Gauza guztiei alde negatiboa bilatze-
ko joera handiegia dago, sarritan kexa-
tzeagatik kexatzearen kultura bilaka-
tzeraino. Ezkorrak alderdi politiko
bilakatuko balira, gehiengo osoz esku-
ratuko lukete Gobernua. Izan ere, nork
ez du inguruan norbait, kexa hutsaren
banderarekin bere jarrera eraiki duena,
egunak gaur hemen eta orain eskain-
tzen digun eskaparate argitsua eta
alaia gozatzeari uko egiten diona eta
dendaoste ilun tristea bilatzen duena?

Gauza guztiei alde negatiboa bilatzen
diena negatiboa da.

Negua joan dela-eta Zea Mays-ek adio-
rako terapia askatzaile ezin hobea pro-
posatzen digu: laztandu nazazu orain,
ta larrua jotzean garrasirik ozenena gor-
din amaigabea... izara guztiak erre arte.

Uda joan da ta, nago, neguaren trau-
mak txipiroiaren tinta beltzak bezala
gati batzen gaituela uste dutenentzat
ere, terapiarik onena eta betegarriena
negua joan denerako proposatutako
bera dela: laztandu, larrua jo, garrasi-
rik ozenena gordin amaigabea izarak
erre arte... baita neguko egun goibele-
netan ere, baita ezkorrentzat ere, edo
horientzat bereziki. •